

ERREALITATEA OTE DA?

Munia Iriondo
Donostia, 16 urte

Paradisua,
urrez apaindutako etxeak,
diruz lauxatutako kaleak.

Paradisua,
aurpegi ilun eta tristeetan
irribarrearen gozoa txertatzea...

Pradisua,
beira bezain gardena den itsasoa,
belar berri kolorekoa den lurraldea...

Paradisua,
Lurra animalia guztien janari
Gizadiarentzat laztan egin zeneko garaia...

Paradisua,
maltzurkeriak maitasunarekiko borroka
galdu zueneko nazaretarren Golgota...

Baina ez zaidazu galdetu paradisuaren esanahia,
dakidan arren gure sentimendu eta ametsen
bizilekua dela.

Errealitatea ote da
estalpe baten bila
dabilen haurra...
eta Miltonen Paradisu Galdua?

Errealitatea ote da
gerrako ahotsak
gizakiarenak baino ozenagoak izatea...
eta Vivaldiren udazken hain horaildua?

Errealitatea ote da
pateratan datorrenaren esperantzak
naufraگوen hondartza jotzea...
eta Haendelen Aleluia ezin kantatu izana?

Errealitatea ote da
aberatsen ondasunak
pobreen izerdiaren zuku izatea...
eta Huxleyren Mundu Berriaren iruzurra?

Errealitatea ote da
metalezko txanpon hori
gizakien buruzagi bihurtzea...
Isaiasen profezia ederraren infrentzua?

Errealitatea ote da
estamentu gabeko lurraldean
mundu ezberdinak egotea...
Ghandiren bihotzera egunero jotako tiroa?

Ai, ez zaidazu galdetu errealitatearen esanahia,
edo eguneroko bizitzarena,
begien aurrean dugun paradisu-rik gabeko
egia.